

Kukutzaren eraisketaren aurkako protestetan parte hartzen ari zirenean atxilotutako bi gazte absolbitu dituzte

Bilboko 4. Zenbakiko zigor epaitegiak desordena publiko delitua egotzirik epaituak izan ziren bi gazteak absolbatu ditu, 2011ko irailean Kukutza III gaztetxea defendatzeagaitik atxilotuak izan ziren.

Martxoaren 11an epaituak izan ziren bi gazteak absolbitu dituzte, fiskaltzak 22 hilabeteko gartzela zigorra eskatzen zien ustezko desordena publiko delitua egotzirik. 2011ko Irailaren 21etik 23ra Ertzaintzak dispositibo erraldoia zabaldu zuen Errekalde auzoan, ehundaka zauritu izan zituen ondorio eta 82 pertsona atxilotu edota identifikatu izan zituzten. Aurrekoetan salatu izan ditugun atxilotuta arbitrarioak, inolako bereizketarik ez zituztenak, Errekalde auzotik ibiltze hutsak poliziek delituztat hartzen zuten.

Epaiketan deklaratu zuten ertzainen kontraesan deigarri ugari irakurri daitezke sententzian, adibidez gazte batek buruestalkia zeramala zioten, atestatu polizialak ordea buruestalkia beste atxilotutako adin txikiko batena zela zioen. Atestatu polizialean azaldutako gertaerak delitu izateko larritasun nahikorik ez zuten "Ez bait daude datu gehiago (...) auzupietuek inolako arrisku zehatzik sortu zutela esateko" beraz "jokaera honek ezin du eskatzen den zigor gaitzezpena jaso" nolabaiteko "erantzukizun administratiboa (...) ordena asaldatzeagaitik edota hiriko elementuak hondatzeagaitik" bai ordea.

Beraz, sententzia honek bat egiten du aurreko biek, poliziak deklaratzeko duten guztia inolako sinesgarritasunik ez bait du. 2012ko ekainean lehenengo epaiketa izan zen, bi gazte alemaniarren kontrakoa, akusazio larrietara aurre egin behar izan zuten: istilu eta desordena publikoa eta hiru urte eta erdiko gartzela zigor eskaera, azkenik Bilboko 5. zenbakiko zigor epaitegiko sailburuak absolbatu zituen, epaiketan erabat argi geratu bait zen, argazki eta suhiltzaileen informeeekin, poliziek zioten toki eta orduetan ez zela kontenedorerik erre "Akats edo zehaztasun falta egin dute, tokian edo lekuan gaizki kokatzeagaitik, gertaera hauen ustezko egileen identifikazioan ere gerta ahal izan den akatsa". Eta bigarren epaiketa, ihazko irailaren 27an izandakoan, epaile berak ulertu zuen gertaerak delitu izateko larritasun nahikorik ez zutela, ordena publiko falta baizik, eta azkenik 11 auziperatuetatik 8 absolbitu zuena, gainontzeko hiruei 180 €ko isuna ordaintzera behartu zituen Gordoniz kalean izandako jesarrialdiagatik.

Ares kontseilari ohiaren Kukutz III gaztetxeari bruzko teoriaren gainbehera

Rodolfo Ares barne kontseilariak, Bilboko alkate den Iñaki Azkunak eta Ertzaintzak Kukutza III gaztetxea defendatzen egon ziren pertsonak estremistatzat eta era guztietako gaizkiletzat azaldu zituzten hedabideetan, egun hoietan Ertzaintzaren zilegizko jarreraren aurka bortizki jokatu zutenak eta Errekalde auzoan izua zabaldu zutenak - nolabaiteko "laguntza internazionala" jaso zutela zioten ere-, honekin hiru dira jada epaiketetan emandako sententziek teoria honen gainbehera argi uzten dutenak.

Errekalden eta Bilbon liskarrak izan ziren, eta Errekaldeko mugimendu sozial eta auzo elkarteak zilegitasun gabea eta justifikaezina zeritzoten desalojo eta eraistearen kontrako erantzun soziala egon zen, hala izan zen; baina benetan gertatu zena Ertzaintzak herriaren kontra izan zuen jarrera erabat desproporzionatua eta bortitza.

Eta zoritxarrez Ertzaintzaren jarrera honek zigorrik gabe geratzeko bidea darama. Hainbat zauritu eta jipoituek aurkeztutako salaketak -haietariko batzuk ondoren epaituak eta absolbituak izan zirenak- hainbat epaitegik artxibatu izan dituzte, ezin izan bait dituzte erasotzaileak identifikatu, burua estalita zeramatelako eta haien kideek edota barne Kontselaritzak ezin izan bait dituzte identifikatu. Oraindik ez dakigu apirilaren 16 izandako epaiketaren sententzia,

Ertzain baten kontrako epaiketa, neska gazte bati sabelean ostiko bortitza eman ziona Ametzolako errotondan, gaztetxetik 500 metrotara.

Kukutza III gaztetxearekin elkartasun osoa baketsuki erakutsi zuen mugimendu sozialak oraindik ere epaiketaren zain daudenen pertsonen absoluzioa espero dute. Baina, dena dela, poztasunez jaso dute erantzun judizial hau, jazoerak hobeto isladatzen duena, argi utziz Ertzaintzak dioena gezur hutsa dela. Eta eskatzen dute gertaerak haien interesen onurarako aldrebestu duten pertsonak -Barne Kontseilariak eta Bilboko Alkateak bereziki- momentu horretan alde batera utzi zituzten erantzukizun politikoak hartzea

Bilbon 2013ko maiatzaren 14ean

KUKUTZAREKIN ELKARTASUN TALDEA